

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Urtarrilak 20, 7. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

AUKEA, kirola denon aukera

Orain ia urtebete dela, Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoa sortu zen. Nahiz eta elkarte oso gaztea izan, proiektuz beteta dago, eta badaude hainbat esperantza bere gain jarrita.

Herriko kirol-elkarte guztiak bateratzen ditu, eskola eta erabiltzaileak ere ordezkatuak daudelarik.

Asteartean Antoñako Pabiloiaren inaugurapen ofizialarekin batera, I.AUKEA trofeoa banatu zen. Haiengana hurbiltzeko momentu aproposa iruditu zaigu. (10. or.)



Antonio Caballero, I. AUKEA trofeoetariko bat jasotzen

Orain eta hemen

—Leintz Orfeoia laster

“Arrasate Musical”ek, Aretxabale-tako abesbatzak eta Eskoriatzako Gorosari Abesbatzak orfeoia sortu nahi dute bailaran. (7. or.)

—“Aratuzteak 89”

laster datoz berriro jai berezi hauek, aurtun programa berri batekin etorriko zaizkigularik. (8.or.)

—Elkarrizketa: Txepetx

Jose M. Sánchez Carrión euskal linguistarik onenatariko bat dugu. Eibarren “Hizkuntza-Hezkuntza” jardunaldietan harrapatu genuen, gure “Arrasate Press” honetara elkarriz. (17. or.)

—Artea

(“Les Demoiselles D’Avignon: arte modernoaren historiaren lehenengo hausketa”). (20. or.)

—Musika

Txibistori eta Katu-Kaleri buruzko artikuluak. (21. or.)

—Kirolak

Aire berriak Besaiden. (18. or.)



Etxe-Aundi
Restaurant

Torre Auzo, 9 - Teléfono 943/781956 - OÑATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
Bergara	

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuaren egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
---	--------

URTARRILAK 20, OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Amiga Mortal".
Novedades (Bergara): "Once días, once noches".
- Goardiako farmazia: A.M. Morales, Iturriotz.
- Aretxabaletako "Leniz Lanbide" L.H-ko institutoak antolaturik, **Bekereke** antzerki taldearen emanaldia, "Al fondo a la derecha" obrarekin. Arratsaldeko 7etan, Aretxabaletako enparantzan.

URTARRILAK 21, LARUNBATA

- Zinea: "Ensalada de gemelas".
Novedades (Bergara): "Once días, once noches".
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga.
- Amaya antzokian, arratsaldeko 6etan "Txontxongilo" taldearen emanaldia, "Iputargi" obrarekin. Lan onek oso kritika onak jaso ditu, 5-7 urtetako haurrentzat eginiko lan hau deskribatzerakoan hitz hauek erabiltzen dituzte taldekoek: "Ipuinak, xeheak, maitagarriak jaio dira, seaska kanta bat bezalakoak. Baina baita ere, bere ipuinak entzutera inguratzen zaizkien guztiei Iputargik irripar txiki bat piztuko diela itxaroten dugu."

Txontxongilo taldeak 1971 urtean hasi zuen bere lana eta gelditu gabe aritu izan da lanean. Une hauetan lan ezberdin ugari ditu eskuartean, "Gizona, sugea eta azeria", "Erreka Mari, Euskalerriko azken lamina", "Pasaiako plazatik" esate baterako.

Ikustaldi polita larunbatean eskainiko digutena, haurrentzako bereziki egin baina nagusiek ere disfrutatzen duten modukoa.

- "La Polla Records" talde agu-

raindarraren kontzertua Gazte-txean, gaueko 11etan. Sarrerak 300 pta balioko du. Talde honek gure herria ez zuen urtebete dela bisitatzen; aukera ederra, beraz, larunbatekoa.

URTARRILAK 22, IGANDEA

- Zinea: Alai: "Ensalada de gemelas".
Novedades: "Lunes tormentoso"
- Goardiako farmazia: S. Español; San Andres.

URTARRILAK 23, ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Ensalada de gemelas".
Novedades (Bergara): "Lunes tormentoso".
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Elcano.

URTARRILAK 24, ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Ensalada de gemelas".
- Goardiako farmazia: J.I. Irizar, Erguin 1.

URTARRILAK 25, ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago sesiorik
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina 32.

URTARRILAK 26, OSTEGUNA

- Zinea: Alai:
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena 3.
- Zine-kluba-k antolatutako pelikula emanaldien barruan, "Sid y Nancy", Amaya zineman arratsaldeko 8,30etan. Zuzendaria: Alex Cox, Antzezleak: Gary Oldman, Chloe Webb. Pelikula honek Sid Vicious, Sex Pistols taldearen liderraren bizitza kontatzen digu.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

**Erredakzio
-kontseilua:** Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karmele Zuazubiskar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso
Juanito Leibar
Estepan Plazaola

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea


Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN:

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Dallas Estiloa? Ez, eskerrik asko

Ezin dut ulertu. Euskarak merkatal arlo guztietara jo behar du, gure hizkuntza normalduko bada. Hori horrela da eta sarri aldarrikatu dut jarrera hau, aukera izan dudan bitartekoetan. Euskara erren-tagarri egiten denean -eta erren-tabilitatea, zalantzarik gabe, bizi dugun munduan diruz neurtzen da- nazio-askatasuna errealitate izango da. Horretaz ez eduki dudarik.

Baina ezin dudala ulertu esan dut hasieran. Nora noan? Begira, ETBk iragarki gutxiarekin bonbardeatzen gaitu; arrazoia begi bistakoa da: iragarkitan inbertitu behar dutenek ez dute euskarazko katean beren diruetarako etekinik ikusten. Ekonomi-planteamendu hutsetik aztertuta, ezin dakiok inbertitzaileari inolako errurik lepora. Bera bait da bere diruaren jabe bakarra.

Baina oraindik ez dizuet nire ulertezintasunaren zioa argitu. Ea oraingoan hariari atxikitzen naitzaion: Ez al duzue ETBk azken bolada honetan luzatzen digun "Dallas"i buruzko iragarkia das-

tatu? Ahoa bete hortz utzi naute "txoritxo"koek, ez dakit zer mezu bitxi ezaguterazten digutela, "sartu zaitez Dallaseko munduan" esaera borobilaz amaitzen dutenean.

Zer erakutsi nahi digute? Nora garamatzate? Hamabost-hogeigegundutan zehar, "xarma handiko klasikoa", "estilo berri bat" eta horien gisako flash-ak jaurtikitzean, benetan ari al dira etebeerrak? Gurea nahi dugun estiloan bizi gaitezen hainbat eta hainbat esfortzu egiten ari denean -eta aldizkari hau horren ezaugarri bat da- iparramerikar kapitalismoak sorturiko enjendrorik itzelena onartu behar al dugu, gurea bailitzaion? Mesedez...

Eta kanpaina horren atzetik esku ezkuturen bat balego, iragarriak ikusten diren irudien bidez bere egunean merkatal aholkuren bat azalduko zaigularik, ulernezakeen bakarra ETBren fakturazioa litzateke; inola ere ez, mezurako erabili den teknika eta euskarria. Niri, behintzat, Dallas estiloak min egiten dit.

Josemari Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGURUAK

GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrickabeitia 79 74 35
Andoni Conde. 79 60 08

EIBAR

I. Gerrickabeitia 71 21 39
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gauko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

**GIROA
AROTZA**

**ZABALDU BERRIA
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

ALASA
ASEGURUAK

Zeuren zertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Pozik sukaldari

Hogeitamasei emakume, gazte eta ez hain gazte, izango dira sukaldaritzari poz berriz ekingo diotenak, hainbat gauza baliagarri ikasi ondoren AEDko ikastaroan.

Bederatzi saioetan zehar ikasi dute zertan datzan zenbait mokadu goxoen gakoa, okerrak nola zuzendu, sutegi eta ontziak samur garbitzeko modua... Baita ere jaki berriak maneiatzen, bai osagai, bai prestakuntza aldetik, etxekoen aho-sapaia goxatzeko; oilasko betea eta mazapanak, adibidez.

Ikastaro hau ez da jendeak nahita bukatu. Gauza asko jakin nahi zituzten oraindik partaideak. Gainera, parte hartu dutenez gain, beste batzu ere geldituak dira nahi eta ezinean, jende gehiagorentzat tokirik ez zelako. Batzuek eta besteek datorren urtean izango dute aukera.

Bixi Bengoa sukaldaria izan da ikastaro honen arima. Bere jakiteari eta dedikazioari esker ikasi dute hainbat gauza. Bejondeiola bada!

AEDko emakume taldea

Txistorra postuak nun?

Kaixo:

Orain 4 edo 5 urte Santamasetan gogoratzen naiz txistorra puestoak alde guztietan egosela, eta azkenengo Santamasetan (1988) ezin ikusi neben inundik inorabez. Egia esan, nere gogoak kanpoan ipinitako puesto baten txistorra jatia zan, baina jan barik etxera etorri bihar izan nintzan. Eta hurrengo egunean, esan eustien Frantziskotarren atzean euela puesto bat, baina nire galdera zera da: Zergatik ez puesto bat Zaldibarreren, holako jendetza dagoen tokian? Eta berdin, Biteri Etorbidean eta Sebero Altuben? Hasi berdura edo baserri jeneroa dauen plazatik eta Zaldibarrera bitartian, jendiak eskura eukitzeko moduan pentsatzen jat neri.

Bittor Bergaretxe

Kaixo lagunok:

Tuterako "Rivera Navarra" as-tekariaren bidez jakin dudanez, antzerako zerbait argitaratu behar omen duzue Arrasaten. Izugarri poztuko nintzateke zuen harpidedun egingo baninduzue, ni Arrasaten hazi bait nintzen; "Eskolako maisuaren semie" naiz. Nire garaian, Garmendia anaiak (Joakin eta Gerardo), Bittor Bedia ("Bedia" taberna eta zinemakoa), Roke eta Teodoro Mendizabal etab. ere joaten ziren nirekin batera eskolara. Mondragoeri buruz ahaztezinezko oroitzapenak ditut, nire bizitzako lehenak izan bait ziren; baina gero, zenbait gorabeherarengatik, alde egin nuen Arrasatetik 16 urte nituenean. Ziur aski, zuen aitona-amonak nire lagun izan ziren Eskolan, azokaren eta San Frantzisko elizaren ondoan zegoen eskola hartan.

Alaba dut maistra Nafarroako Kortez herrian -euskaltzaletasun handiko herri horretan-, eta beraren helbidea bidaltzen dizuet, ongi iruditzen bazaizue, berari ere zuen astekaria bidali diezaiozuen.


Arrasatetik Logroñora joan nintzenean ikasketak egitera, barre egiten zidaten gaztelaniaz txarto egiten nuelako berba. Orain, hainbat urte igaro ondoren, euskara ahazten ari zaidala konturatzan naiz.

Bihotz-bihotzez opa dizuet arrakasta handia, eta gaintu dezazuela "Rivera Navarra" bera ere; honen laguntzaile apala nauzue ni neu.

Besarkada bat denoi. Zuen lagun,

*Amador Portillo de Ibarluzea.
Frescano (Zaragoza)*

Ados zaude eutanasiarekin? Zergatik?



Carlos Ruiz
(tabernaria)

— Bai.
— Badaude pertsona batzuk, bizitza artifiziala daukatenak, makinek bizirik mantentzen dituztenak. Egoera horietan ez dut uste inori gustatzen zaionik bizitzea.



Jesus Landa
(jubilatua)

— Ez.
— Esperantzaren bat beti dago, milagrotxoren bat ere inoiz gerta daiteke. Pertsona egoera horietan sufritzen egoten da eta familia gehiago, baina zer egingo dugu...



Santiago Gonzalez
(udaltzaina)

— Bai.
— Sufritzen egoteko eta familiarik ere sufritu baino ez duenean egiten, ados nago eutanasia aplikatzearekin.



Sonia Garcia
(ikaslea)

— Bai.
— Jendeak sufri ez dezan, txarto pasa ez dezan.

Hire azken tragoa

OTAMENDIN

Legarreko pabiloia

Arrasate

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
asteleheneretik ostiralera

Otalora, z/g.

Tfnoa: 79 37 76

LORATEGI

Iturriotz kalea, 7

Tfnoa: 79 04 67



SOKOA

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

Arrasate

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea

Tfnoa: 79 71 80

Udalak Amaya zinema eskuratzeko ahaleginetan dirau.

Udalaren azken Gobernu-Batzordeak burutu duen azken bileran, Amaya zinemaren truke, udal-orubeak ematea astertu zuen.

Ugariak izan dira Amaya zinema erosteko Udalak egin dituen eskaintzak. Gogora dezagun, Gurea zinemarekin trukatzeko pentsatu zela, baina azkenean Udalak Gurea zinema udal-jabego gisa mantentzea erabaki zuen.



- Badiñudi, Udalak azkenean Amaya eskuratzeko duela.

Ondoren, Amaya-ren jabeek 60 milioitako eskaintza egin zitzaion baina azken hauek eskaipzari ezetza eman ondoren zinemaren truke, udal-orubeak ematea proposatu zuten.

Ikuspuntu tekniko batzuk aztertzeke dauden arren, badiñudi azkenean, hau izango dela Udalak hartuko duen bidea; trukatu daitezkeen lurrik Musakola eta Kaleko batzuk dira.

ESPRIT programaren proiektu bat arrakastatsu bururu Ikerlanen

1988 urtearen amaieran, Arrasateko Ikerlan zentroan, Task Force-ko adituek "PAHO" izeneko proiektuaren azken froga burutu zuten. Proiektu hau Europako Ekonomi Elkarteko Informazio Teknologien

ESPRIT proiektuaren barruan kokatzen da.

Proiektu honen helburua zelula malguen hutsekiko erresistentzia neurtzea izan da. Kontzeptu honek interes berezia du fabrikazio prozesu aurreratuetan.

Langabetuei buruzko datu bilketa

Arrasateko Udalak, enplegu-batzordearen bidez, langabetuei zuzenduriko galdera-sorta bat kaleratu du, beraien egoerari buruz informazio praktikoa lortu asmoz.

Datu-bilketa honen helburua, Udalerrian dagoen lan-merkatu eta heziketa-beharrak ikertzea eta era berean, enplegua sortzeko zenbait iniziatiba bultzatzen laguntzea da.

Inkestak bete ondoren, udal-etxera eraman behar dira; eta enplegu gaiez informazio zuzena lortzeko aukera izango da.

Zaldibar estaltzearen aurkakoek beren balorazioa aurkeztu

Zaldibar frontoia estaltzearen aurka dagoen herritar-komisioak, dagoeneko burutu duen kanpainaren lehen balorazioak egin ditu.

2.200 sinadura jaso ditu, jendearen aldetik oso erantzun ona jaso dutela adierazi digutelarik.

Alderdi politikoei ere sinadura eskatu dieten arren, PNV, PSOE, eta HBk ez dute sinatu aurkeztutako idazkia eta EE eta EAren erantzuna jasotzeke dute.

Orain sinadurak Udaletxean aurkeztuko dituzte, bertatik jasotzen duten erantzunaren arabera, beste ekuinza batzuk planteatu ditzaketelarik



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak


**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak


BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Ezagunak "Santamas 88" argazki lehiaketaren irabazleak

Jaione Lasanta arrasatearrak irabazi du "Santamas 88" argazki lehiaketa 20.000 pta.ko saria lortu duelarik.

Bigarren eta hirugarren sariak Miguel Angel Arenaza-rentzat izan dira eta 15.000 eta 10.000 pta.ko sariak jaso ditu, hain zuzen ere.

Gogora dezagun, Jaione Lasantak AEDk antolatutako argazki lehiaketan lehen saria lortu zuela.



Monterroneko argazki erakusketa

Esan beharra dago, lehiaketaren oinarrietan agertzen ez bazen ere Roberto Mendik, Goenatxo harri-jasotzaileari egindako argazkiak,

aipamen berezia merezi izan duela.

Epaimahaia, EGIN eta Diario Vasco egunkarietako korrespondentez, Kultura-Batzordeko kide batez eta Santamas komisioko kide batez osatua, Urtarrilak 14an Monterron Kultur Etxean bildu zen lanak epaitu asmoz.

Lehiaketan 13 artistek hartu zuten parte eta beren lanak Monterron Kultur Etxeko erakusketa aretoan datorren hilaren 22 arte ikusi ahal izango ditugu.

Sari banaketa datorren igandean, eguerdiko 1,30etan Monterronen izango da.

Lenitz Orfeoia laster

Lenitz bailarako Orfeoia sortzeko gogoak ez ei dira atzo goizekoak. Hil honen 17an egin zen bilera bat asmo hori gauzatu ahal izateko. Arrasate Musical, Aretxabaleta Abesbatza eta Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza dira egitasmo honen bultzatzaileak. Beren nortasuna galdu barik nahi dute Orfeoia sortu. Ditzuten asmoen arabera, hilaren 19ko Batzar Orokorrean erabakiko da azkenik Leintz Orfeoia sortuko den ala ez.

Aurten, bestalde, Eduardo Gorosarri musikagile eskoriatzarraren lehen mendeurrena betetzen dela eta, Eskoriatzako Udalak dei zabala



Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza Monterronen abestu zuenean

egin du herriko elkarte eta nahi duten guztien artean apropos sortutako lantalde baten bidez urtean zehar hedatuko den egitarau duin eta ederra egin dezaten.

Eskoriatzako txistulariak, adibidez, hasiak dira harremanetan

Euskal Herriko Txistularien elkar-tearekin, ekitaldi bereziak antolatzeko asmotan. Jakin izan dugunez, TELESKO, Eskoriatzako Telebista ere sartuko litzateke beraien planetan, aipatutako ekitaldiak transmititzeko, alegia.

GABINETE KLINIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analiak


Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 86 89



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

“Aratuzteak 89” jaiak antolaturik

SUDC eta Koadrila Komisioko partaideak antolaturik dituzte da-goeneko aurtengo ihauteri jaiak.

Aditzera eman digutenez, Festei Otsailaren 4ean, larunbatean, hasiera eman arren egun nagusia asteartea izango da.

Ekintza ugari eta ezberdinak daude antolaturik:

—Larunbatean goizez, mozorro lehiaketa; arratsaldean, haurrentzako bakilak eta gauen nagusientzat sokamuturra izango ditugu. Honez gain, zazpietatik aurrera “Gaurkoberri” taldeak alaitutako dantzaldia.

—Igandean, dantzaldia “Eguzki” taldearen eskutik. Hasi- era batean, egun honetarako SUDC-ekoek trikitixa eta bertso-jaialdia antolatu nahi zuten, sortzeko asmoa duten trikitixa- eskolarentzat laguntza gisa. Baina, Udalarekin tira-bira batzuk izan ondoren, datorren hilaren 25era atzeratzea erabaki dute.

—Asteartean, jaietako egun nagusia, honako ekintza hauek izango ditugu: karroza-desfilea; disfraz lehiaketa, aurten epai-mahaikoak herriko kaleetan zehar sakabanatuko dira, disfraz onena



Aratuzteak sendotuz doaz

aurkitzeko ahaleginetan, eta Sardinaren entierroa.

Arratsaldez konparsa batek alaituko ditu herriko kaleak eta gauetz dantzaldia “Borrascas” talde nafarrek.

Aurrekoarekin loturik, esan dezagun, gaur, hilak 20, Aratuzte jaietako kartela aukeratua izan dela.

Jaiak irauten duten bitartean, argazkilariek rally fotografikoan parte hartzeko aukera izango dute. Parte hartu nahi dutenek Otsailaren 2an “Alkartu” Elkartean eman beharko dituzte beren izen-abizenak eta bide batez, bertan banatuko dizkieten argazki karreteak jaso.

Esan dezagun, Arrasaten ihauteri jaiak ez dutela sustrai sakonik, urte askotan ospatu ez zirelarik. SUDC eta koadrila komisiokoei esker festak indarberritu egin dira, gaur egun herriko nagusien artean daudelarik.

ELAk Eskualde-Ospitalean mediku-espezialisten eza salatu

Kaotikotzat jo dute Deba Garaiko Eskualde-Ospitaleko ELAkoek Ospitalaren egoera.

Sindikatu honen ordezkariak aditzera eman dutenez, mediku-espezialisten eza nabaria da Arrasateko Ospitalean, eta bere funtzionamendua ez da bat ere ona. Jende askok, denbora luzean itxaroten egon ondoren, etxera joan behar izaten du, atenditua izan gabe, mediku titularra gaixorik edo oporretan dagoelako. Kasu hauetan ordezeko medikuarik ez izatea salatzen dute.

Bestalde, urgentiako-bolantea lortzen duenak Gasteizeko Ospitaleera joateko aukera du; lortzen ez duenak, ordea, mediku pribatuengana jo behar izaten du.

Ez dute ulertzen ELAkoek, Osakidetzak nola ez duen hemengo mediku langabetuekin, espezialistak prestatzearen aldeko politika bultzatzen, behin eta berriro mediku-espezialistak kanpotik ekartzen ari den bitartean.

Orain daukagun Ospitaleak Deba Garaiko populazio osoaren beharrei erantzuteko ez dituela baldintzak betetzen uste dute bai ELAkoek, bai beste sindikatu batzuek, bai ospitaleko langileek.

Erguinen ere, Otsailetik aurrera ludoteka

Datorren hiletik aurrera Erguin auzoan ludoteka zerbitzua martxan jarriko da, larunbatero goizeko 10etatik 1etara.


Arrasateko ludoteka joan zen urtean hasi zen bere zerbitzuak eskaintzen, aurten, zerbitzua auzoetara

zabaltzea pentsatu delarik. Dagoeneko San Andres auzokoa martxan dago eta beste auzo batzutarara ere zabaltzea pentsatu da.

Ludotekariak, bertako bazkideei 1989 urterako txanda berritzeko deia luzatzen diete, honetarako

ludotekara joatea ezin bestekoa dela gogoraraziz.

Honez gain, ludotekariak Arrasateko herritarrei erabiltzen ez dituzten jostailu eta arropa zaharrak ludotekara eramateko eskaria egiten diete.



GALLINA
BLANCA

BANATZAILEA
ARRASATE PENTSUAK

Pentsu, hazi, botika, ongarri eta baserrirako eta lurrerako behar diren tresna guztiak.

Deba Garaiko zerbitzurik onena !!

Zarugalde 19

Tfnoa: 796539

ARRASATE



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerías, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Zinegotzi bertsolaria

Hilabete honetan, izan den azken plenoan, Kepa Urain PNVko zinegotziak bertara joan ziren guztiak harritu zituen bertsotan hasi zenean. Mikel Garairi bota zizkion bere lehen hauraren jaiotzarengatik zorionak eman asmoz.

Hona hemen bertsook:

*Auxe da poza, urte berria
dator aingerutxuakin,
zu Mikel Garai zinegotzia
aita ein zarela jakin.
Zure emazte zoriontsua
bular gainean Anekin
zuen etxean ezta faltako
kontutxuak nori egin
jarrai euskeraz mintzaten beti
euskalduna izan dedin*



Zutik berriro

Urtarrilak 5ean goizaldeko laurak eta bostak bitartean, ezezagun batzuk Udalako plazan kokaturik dagoen Kepa Landaluze arrasatearraren eskultura bota zuten lurrera.

Udaltzaingoak aditzera eman digunez, ezin esan daiteke berez erori zenik, asko pisatzeaz gain, eskultura ongi finkatuta baitzegoen.

Dagoeneko Udaletxeko Zerbitzu teknikoetako lagunek berriro jarri dute zutik eskultura.

Luzarorako izan bedi.

Aretxabaletarrak turismoa erakarri nahiean

Aretxabaletako Udalak, turismoa bereganatzeko aldizkari bat atera berri du. Izenez "Aretxabaleta", lau orritan zehar Aretxabaletako bizitza azaltzen ahalegintzen da. Aretxabaleta bere ingurunean kokatu ondoren, bertako gastronomia, ohiturak, ekonomia, kirola eta kultura eta bere inguruko paisaia erakargarriez hitzegiten digu. Koloreetan argitaratua, argazki ugariz hornitzen da.

Ea zorterik duten eta beren helburua lortzen duten.

izen propioak

Aitor Bermejo izan da 1989an Arrasaten jaio den lehen umea. Gurasoak Pedro Bermejo eta Begoña Lapuente dira, eskoriatzarak. Aitor urtarrilaren 2an jaio zen, arratsaldeko seiak hoge gutxitan. Arrasateko Eskualde Ospitalean, edo gurago baduzue, Zentroan. Ongi etorri, potxolo!

Jose Mari Mugika, 51 urte, AED elkartearen lehendakari berria. Getxon jaio arren, Idiazabalen eman zuen urte mordoa. Louvain-en Soziologian lizentziatu eta gero, 1974ean Ulgorren sartu zen. Orain Ulgorreko Ensketa burua da eta bertako Kontseilu Orokorreko kide berria. Ea guztiarekin ahal duzun, Jose Mari!

Jesus Ginto, zangotzarra. Bi urtez TU-lankide aldizkariaren zuzendaritza eta Fagor taldearen prentsa ardura batera eraman ondoren, utzi egin du TU-Lankide, bigarren lanean burubelarri aritzeko. Jesusek Iruñean burutu zituen kazetaritza ikasketak. Alemanian eta Ingalaterran zehar lau urtez lanean ("Alemaniako Ahotsa" eta BBC irratietan) ibili ostean 1976an Euskal Herrira itzuli zen. Harez geroztik "Berriak"en, Herri Irratian, Adegin eta "Tribuna Vasca"n egin zuen lan, paraje hauetan lur hartu arte.

Angel Barandiaran, 40 urtetako arrasatearra, Fagor Leniz-eko gerente berri izendatu dute. Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Arrasateko Eskola Politeknikoan. 1966an Ulgorren sartu zen. 1973tik oraintsu arte Fagor Industrialeko gerente izan da.

Mondragonesa Grafikagintza

paperdenda - mahaigaineko tresnak

Olarte 10 - tfnoa 79 12 63



omu, s.l.
mosaikoak

ZERAMIKA-ERAKUSKETA

Otalora, 1 - behea
Tfnoa: 79 07 20

AUKEA, kirola demokratizatzeako aukera

Kirola gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen gure eguneroko bizitzan. Kirolean aritzea modan dagoela esan daiteke, lasai asko. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, ia denok egunero ez bada ere, praktikatzen dugu kirolen bat gutxienez.

Hona hemen datu bat: Musakolako Kiroldegitik neguan 1.200 bat, eta udan 2.500 bat lagun pasatzen dira egunero.

Udalak ere gero eta diru gehiago ari dira gastatzen atal honetan, "sukar" honi erantzuna eman nahian.


Helburu honekin, eta kirol munduko erabaki eta egitasmoak bateratzeko kirol elkarten partizipazio zuzenarekin, hain zuzen ere, 1988ko Apirilaren 29an sortu zen AUKEA (Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoa).

Abiapuntua Kultura, Hezkuntza, Kirola eta Gazteri Sailen arteko iazko legealdian emandako sakabanatzea izan zen.

AUKEAko lehendakaria Juan Jose Zabarte dugu; zuzendari-jerentea, Luis M. Iriondo; kirol-teknikaria, Fernando Aguriondo eta medikua, Alberto Garai.

Erakunde honek duen berezitasuna bost politikok eta kirol munduko bost partaidek osatua egotea da. Gaur egun, honako hauek ditugu AUKEAko ordezkari politikoak: J.J. Zabarte (EA); Agustin Ibarluzea (HB); Manuel Sebastian (PSOE); Antton Azurmendi (PNV) eta Aitor Orobengoa (EE).

Kirol munduko ordezkariak,



F. Aguriondo, A. Garcia, J. J. Zabarte eta L. M. Iriondo.

berriz, kirol-elkarteen hiru, eskoletako bat eta erabiltzaileen beste bat. Gaur egun, hauek dira: Isidro Elduaien (San Viator); Antton Fernandez (erabiltzailea) eta kirol elkarten ordezkariak txandakoak dira. Momentu honetan, Beni Uzkiario (gimnasia ritmikoa), Jesus Herrero (esku-baloia) eta Patxi Yarza (Mondragon C.F.) daude.

Taldea, azkenik, bost monitoretan osatzen dute: lau, udalaren kontura, eta bostgarrena, Eusko Jaurlaritzak ipinitakoa: Julio Ajuria, Agustin Jimenez, M. Ester Abad, Paulo Otxoa eta Alfredo Meabe. Ikusten denez, politiko eta ez politikoaren arteko errepresentatibitatea orekatua dago. Gainera, planteamendu gehienak kirol-elkarteen aldetik datoz. Kirola demokratizatzeako erakunde dugu AUKEA, eta hortan dihardute.

Hilero batzar nagusia egiten dute, erabakiak gehiengoz hartzen direlarik. Udalak, bestalde, erakundearekiko "tutoretza-ahalmena" du, hau da, hainbat erabaki Udalaren onepenezkin bakarrik har daitezke: pertsonalaren plantila, aurrekontuak eta subentzioei buruzkoak, labur esanda.

Aurtengo proiektuak

AUKEAkoak, proiektu berriei dagokienez, ez daude lo. Antoñako Pabiloiarekin eta Kiroldegiko berrikuntza batzuekin (aldagelak, klimatizazioa, elektrizitate eta iturgintza berrikuntzak), proiektuaren lehen zatia amaituta geldituko da.

Aurtengo legealdirako, gastu korronteaz gain (50 bat milioi), 290 milioitako aurrekontua dute, honako proiektu hauek aurreztuko direlarik: kiroldegia birmoldaketa (80 milioi); Iturripeko kiroldegi txikia (45 milioi); hiriguneko frontoia (45 milioi). Hiru eraikuntza hauekin, kirol instalazio nagusien deszentralizazioa izango da herrian: zerbitzu bat Musakolan, beste bat San Andresen, eta beste bat Erdigunean egongo delarik. Beste hainbat proiektu ere badago: Atxabalpeko argikuntza artifiziala; Monte Hidalgo (Musakola auzoan kokatua) tirozelaia, txakur-doma, rokodromo eta footing zirkuitoa egiteko proposamena; Garagartzako belodromo, oraindik estudiatzen ari dena, eta beste batzuk.

Guztira, 290 milioi peseta. Diru gehiegi? Baina jakina, hauek proposamenak besterik ez dira.

Udalak ikusiko du zenbateraino onartzen duen.

Jakin izan nahi dugu zeintzuk diren, kirol aldetik, Arrasaten dauden hutsuneak. Kiroldegiari dagokionez, gimnasio libre (monitorerik gabe aritzeko) on bat, teniseko pistak, sauna hobetu beharra eta aldagelen berrikuntzak lirateke jendearen eskara nagusiak. Honetaz gain, badaude herrian hiru hutsune oso nabarmenak: Atletismo pistak (Iturripekoei buruz, "no comment"), Rugby zelaia, aspalditik eskatua, eta frontoia.

Bestalde, jaso dugun eritzi baten arabera, umeei dagokienean, oraindik konpondu gabeko hutsune bat ikusten da: instalazio guztiak ordaindu egin behar badi-tuzte, haurrek inoiz ezingo dute hauetaz gozatu.


Aurrezaintzeko medizina

Nobedade gisa, AUKEAren kirol-medikua dugu. Alberto Garai da, eta hiru ataletan egiten du lan: umeekin, orain azterketa bat egiten ari da, honen helburua beraien errendimendua handitzea delarik; kirol-elkarteekin, lesioak sendotzen dihardu, batipat, eta azkenik, eskolekin.

Bere lana aurrezaintzeko medizina aldetik enfokatua dago, honetaz kirolariak hezkuntza behar dutela esan digularik: higiene, lesioak aurrezaintze (esginzerik ez izateko,

esaterako), eta dieta mailetan.

Albertok aitortu digu oso gustora dabilela lanean, baina badu kezka bat: berak bakarrik, egunero 24 ordutan lanean ihardutea beharko luke lana ondo aurrera eraman ahal izateko,



5 Squash-frontoi zabaldu dute Antoñako Pabiloian.

honegatik, laguntzaile bat behar du.

Kirol-Elkarteek oso positibotzat jotzen dute

AUKEAk 28 kirol-elkarte bateratzen ditu (Espeleologia taldea izan ezik, Arrasaten dagoen guztiak).

Elkarte hauen ordezkari batzuekin egon gara eta, nahiz eta goiz dela balantze bat egiteko, denek oso positibotzat jotzen zuten erakundearen sorkuntza. Aurrerapena nabaria da haientzat, "orain badaukagu leku bat gure beharrak planteatzeko, eta jentzioan zuzenki parte hartzeko aukera dugu, lehen gertatzen ez zena". Instalazioen beharra ere

azpimarratzen zuten: "Kirol degia, esate baterako, guk marginalki erabiltzen dugu. Lehenengo eskolak daude, gero partikularrak, eta azkenak, gu gara."

Aurtengo aurrekontuak egi-terakoan adostasuna lortzea oso

garrantzitsua izan da. Ados jarri dira, baita ere, elkarte batzuei lehenetasuna emateko orduan. Horrela, Pilota, Atletismo eta Rugby taldeek, beraien beharra (instalazio egokien aldetik) premiazkoa zela ikusirik, lehenetasuna izango dute aurrekontuetan.

Akatsen bat aipatzekotan, "oraindik batzutan lengoai bera ez dugula erabiltzen (politikoek eta kirolariek) igartzen da, baina poliki poliki ..." esan zigun ordezkari batek.

Eskolen artean, bestalde, oraindik ez dugu beharrezko harremanik izan, AUKEAri errendimendu handiena atera ahal izateko.



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114


MEDIKU KONTSULTATEGIA

**ARMANDO BARTOLUZZI LLAROS
AURORA ONA OCHOA
JUAN SALA AYMA**

DOKTOREAK

**Olarte kalea, 43
Tfnoa 79 81 00**

Ume abandonauk



Ez da ezelako dudaik sasoi bateko familixak gaurkuek baño ugerixauek izeten ziela. Bañe ez pentsau, gero, hareik be ekarrितeko danak sutondo epelien hazten zittuenik. Banakan batek handik zier abandonate be ixten zittuen; hori zala ta 1798xen Elixiek inklosa bat jarri auen Mundrauen, bertan inguruetako ume abandonauk jasoteko. Handik 50 urte ingurure desagertu zan etxioi.

Bañe hau danau baño lehentxuau, dexentez lehenau, pasau zan hemen kontauko doune: 1696xen.

Ba ei oien Domingo de Azpitarte, orduko mundrautar Aramaixorutz eta Uribarriko kurtze paretik pasaukeran hor nun sometan dauen ume baten negarra. Ume gaixuoi han ei auen lurrien, auzpez, arrantza baten. Hartu dau besuetan eta:

—“Arraixue, hau Identifikaziño-Kodigo ta guzti itxi juek”

Hala jarten auen paparrien auken letreruek:

“Este motil, es bautizado, se llama rrafael de Uyarbide, es hijo de la provinzia y de podres, padres ya difuntos. Procurar criar que come vien pan y beve sagardoa y Dios pagar si cuidar del.”

Harek behintzet instruziñuek garbi itxi zittuen... Mantenimendue be gastu haundik bakue gañera.

Guk geuk ez gauek iñor tentau gure bere umie hortik zier itxi daixen. Baiñe, pentsaurik, biher bada norbaitzuk iñundik iñotara aguentau eziñien egon leikezela, letrero alternatibo bat emongo dutsueu. Izen be 1696ttik hona gauzak askotxo aldatu die eta.

Hemen doie, baiñe ez gero guri etorri...

“Hau umiau guraso lanpetuen semie da. Oiñarte amamak zaindu izen dau bañe ha be aspertu jaku eta Benidorrera juen jaku. Zazpi aste egin barri dauko. Onena titixe lauke bañe iñudeik topau ezik emoixozue “Noganil” urdiñe, larrosiek kakaberrakue emoten dutso ta.

Hogetazazpi hillebete egin daixenien emoixozue frutie ta berdurie ugeri bañe, mesedez! potitoik ez! burue haundiketan jako.

Ah! ta ipurtrapuek, onena “Dodo-doble” jartie dozue ze etxe beteko kaka pilluek eitten dittu ta. “Ausonia”k, eztakigu ipurdixen kilikili edo zer eitten dutsen; arrantza baten pasetan dau egun osue.

San Tarsizio eta San Toolomeok pagau daizueta”

Leiru, gorde epel-epeletan bañe, ahal dala, ez ebali.

Estepan Plazaola

Zelebrequeriak

Behin Bergarako ardauzale amorratu bat medikuana doia gaixua pasau barri eta honek esaten dotsa:

- Txikiteo gogorra egingok hik egunero, ezta?

- Ez, haundi haundixa be ez, pare bat dozena, gehixenera jota.

- Ba gaurtik aurrera txikiteua zihero ebitau biok, errekaidian (recaida) arriskua daukak eta.

Bai gure gizonak ondo entendidu be: “erreka aidia” txarra zala ta, txikiteua be ebitau biar zala ta, errekatik urriñ, Gorla aldera joaten ei zan egunero ardao botia bizkarrian zebala.

■ ■ ■ ■

“Taketa” ona eta borondatsua beste, aldrebesa ei zan. Gauza guztiak aldrebes esaten ei zittuan. Baiña tontotik ikutuik pe ez. Idurixon kriaue zeuala, egualdi hotz eta euritsua zan baten, hala galdetu ei zotzan ugazabai:

- Hi, Martin, ardittara heu joango haiz ala neu geratuko nok etxian?

■ ■ ■ ■

Beste bergarar harek pe etzeukan bere buruan iritzi on ona: “Jangoikuak bere semia gizon bihurtu zebala? Hori eztok ezer. Hain habilla bada gu gizon bihurtzia jaukak”.



Juan Martin Elexpuru

Oinarrizko Yoga ikastaroa



Hasiera : Urtarrilak 23an
Orduak: goizeko 10etan,
Arratsaldeko 4etan eta 6,30etan,
Gaueko 8,30etan

IKASTAROAK 5 ASTE IRAUNGO DU
J. L. Iñarra 26-28 Tfnoa: 79 35 76



JESUS ELKORO

ELEKTROTEKNIKA

TB - HIFI - BIDEO

Tfnoa: 791886 ARRASATE



ESKORIATZAKO UDALA

Eskoriatzako Udalak Lehiaketa-oposizio librez bere pertsonaleko plantilan hutsik dagoen GIZARTE - LAGUNTZAILE plaza bat bete nahi du, lan-erregimenean, 1988ko Urtarrilaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratuko oinarrien arabera. Oinarriok interesatuen guztien esku daude Udaletzeko Idazkaritzan.

Eskariak Udaletxean bertan aurkerkeztu behar dira ondoko ordu hauetan: astelehenetik ostiralera bitartean, goizeko 11etatik 13etara; osteguneran, arratsaldeko 5etatik 7etara ere aurkeztu ahal izango dira.

Eska aurkeztuko epea Urtarrilaren 27an amaitzen da.

Eskoriatzan, 1989 - 1 - 17

ALKATEA

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA

Posta kutxa 361
Tf: (943) 429945
20080 - DONOSTIA

ALDIZKARIA

Inguratzen gaituena hobeto ulertzeko eta zientzia nahiz teknologiaren gorabeherak ezagutzeko irakur ezazu ELHUYAR. Zientzia eta Teknika aldizkaria

H
A
R
P
I
D
E
D
U
N

E
G
I
N
Z
A
I
T
E
Z

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen hamaika ale jasoko ditut gainera doan "Elhuyar" aldizkariaren bi ale.

Izena _____


Helbidea _____ Lanbidea _____

Hiria _____ Telefonoa _____


Ordainketa:

Errenboltoz
Kontu-korrontea k/k zenbakia: _____ Bankua: _____

- 1989.rako 4.500 pta. Euskal Herria eta Frantzia.
 Bi urterako 8.500 pta.
 1989.rako 5.000 pta. beste herrietan.



EUSKARAZKO EGUTEGIAK



Aurten eta lehenengo aldiz, Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak 1989ko egutegiak -handiak zein txikiak- argitaratu ditu.

Egutegi handiak horman ipini ohi diren horietakoak dira, Eukal Herriko argazki ederrez eta hainbat bertso apainduak. Txikiak, berriz, esku-egutegiak deritzoten horietakoak dira eta hainbat telefono praktiko eta erabilgarri jasotzen dituzte.

Egutegi hauek Udaletxeko Euskara Zerbitzuan jaso daitezke.

ZATOZ ZURE EGUTEGIEN BILA !!

EUSKARA BATZORDEA

“Euskal Herriak badauka hainbat artxibo oso inportante. Hor dituzu, esate baterako, Errenterikoa eta baita Arrasatekoa ere. Azken honetan, ordea, iker-tzaileak ez dauka modurik zer dagoen eta zer ez dagoen jakiteko, ez bait dago inolako aurkibiderik”.

(Rosa Aierbe, Donostiako EUTGko dekanoko berriak Euskadi Irratian)

“Amak oso berritsua nintzela komentatzen dit. ka-lean mundu guztiari hitzegiten omen nion, bat baino gehiago lotsatuz gainera. Saltzaile izatea omen zen nire bokazioa. Baina dena dela, nire izaera aldatu egin da”.

(Arantzazu Loidi, aretxabaletar bertso-lariak "Hemen" asterokoan)

“Lehengo aldian baziren bi gazte Corte Inglesen Mauriaten diskoak erosten: biziki gomendatu nizkien Juan Carlos Irizarren azken lau disko berriak, beldurrik gabe baitira gomendagarriak, beti ere gauzak bere lekuan uzten baldin badira, neurritz kanpo ibili gabe”

(Pello Salaburu, idazle nafarrak "El Correo Escolar-Asterokoa" gehigarrian)

“Erretiroa hartu nuenean, egoera zail samarra nuen familian, seme-alabak lanik gabe, etab. Eta nik, oraindik ere Lan Kide Aurrezkiko bazkide izanik, ez nuen nire banketxean inor prest aurkitu aholkatu eta etorkizunean nondik nora jo behar nuen esateko”

(Rosario Zubizarreta, AMATen lan egindako jubilatua, TU-Lankide aldizkarian).

Zein da Labeko-Koban aurkitutako aztarnategiaren garrantzia?




Beno, lehenik esan beharra dago, Goi-paleolitiko garaia ez dela oso ezaguna, ez Euskal Herrian, ez Kantauri alde osoan; honez gain, kontutan izatekoa da Kantauri

aldea dela garai honi dagokionez, aztarnategi garrantzitsuenak dituena; penintsulan hauekin pareka daitekeen aztarnategirik ez dagoela esan nahi dut honekin. Beraz, Labeko-Koban aurkitutako aztarnategia oso garrantzitsua da; batetik, bertan aurkitutako aztarnak garai honetakoak direlako eta bestalde, aztarnak ugariak direlako.

Aurkitutako aztarnak hiru epetan banatu ditugu. Lehen epean ez da gizonaren presentziarik somatzen, gordailu naturala da, animaliarik baino ez delarik agertzen. Bigarren eta hirugarren epetan gizona koban bizi izan zela ikus daiteke. Agertzen den tresneria desberdina delako eta horrez gain estatigrafian ere bereiztuak daudelako bi epe direla esango dugu.

*Alvaro Arrizabalaga
(Aranzadi Elkarteko kidea)*

Beherapen handiak

LORAMENDI 

KIROLAK

Anorakak eta txandalak
Haurrentzako tailetan aukera handia

ARRASATE

UDAL EUSKALTEGIA

euskarazko ikastaroak

Plaza mugatuak

Matrikula: Arimazuri, 2

Tfnoa: 79 70 77

INFORMA ZAITEZ !!

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi - Etxebarrin

200 m² tatik aurrera
sarbide zabalekin

- * Plantartekoa eta zubi-garabia, aukeran.
- * Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia.
- * Zerbitzuak: saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta:

Tfnoak: Gasteiz * 28 67 60

* 27 79 60

Arrasate * 79 97 95

Txepetx: Euskara erabiltzeko zerk du eraginik handiena, eginbeharrak ala plazerrak?

Eibarren hil honen hasieran burutu berri diren, Hizkuntza-Hezkuntza izeneko jardunaldietan, Jose M^a Sánchez Carrión soziolinguistarekin hitzegiteko aukera izan dugu. Txepetx-ek ezagutzen du inguru hau, izan ere, duela urte batzuk Arrasateko Institutuan izan genuen irakasle. Elkarrizketa honetan, bere azken liburua sakonean plazaratzen duen diskurtso berriaren hainbat ideia interesgarri topatuko dituzu.

— Arrasate Press: Zein da hizkuntz normalizazioaren helburua?

— Txepetx: Hizkuntz normalizazioaren helburua bi idea nagusitan biltzen da: Euskal Herrian bizi garen guztiok euskaldun oso izateko daukagun eskubidean, batetik; eta bestetik, euskarak berak euskaldun oso hauen bidez momentu historiko honetan osotasuna lortzeko duen eskubide ukaezinean.

— Euskararen inguruan dauden motibazioei buruz zer esango zenuke?

— Gai hau oso konplexua da. Bi eratako jarrera ezberdinak ikusten dira Euskal Herri mailan.

Lizarran, Barakaldon edo Laudion, euskara aspaldi galdu zen tokietan, euskara ikasteko gogoia eta euskaldun oso bihurtzeko oso motibazio positiboak ari dira sortzen. Egiazko berreuskalduntze prozesua indartzen ari dela zonalde hauetan esan nahi dut.

Beste aldetik, ordea, beti euskaldunak izan diren herrietan euskararen transmisio prozesua mozten ari da; hau da: zonalde euskaldunetan kasu askotan ez dago ziurtatuta transmisio naturala familiaren bidez. Azken puntu hau oso argi ikusten da Siadeco-k egin dituen inkestetan.

Honela, bada, transmisio kulturala indartzuz doan heinean transmisio naturala galtzen ari da.

— Eta pertsona mailako motibazioei buruz, zer esango zeniguke?

— Oso garrantzitsua da gai hau. Bi eratako motibazioak daude:

— Intrinsekoak edo berezkoak: Jaiotzatik euskara dakitenen artean behar direnak. Motibazio hauen egiazko izena *plazerra* da. Euskaraz berba egiteko arrazoia ezin dugu "eginbeharrarekin" bakarrik lotu, euskaraz bizitzeak "plazerra" sortu behar du. Zentzu batean, euskararen eginbeharra itotzen ari dela euskararen plazerra esango nuke.

— Razionalak: Jaiotzatik euskaldun

ez direnak, euskalduntzeko behar dituzten motibazioak dira. Euskalerriratzeko, alegia.

Ezinbestekoa da euskara adimintrazioaren hizkuntza izatea, derrigorrezkoa nazio mailan funtzionatzeko eskola euskalduna izatea... baina prozesu hori egiazko erroekin eta sustraiekin lotzen ez badugu, orduan euskara behehizkuntza bezala geldituko da, eginbeharreko hizkuntza modura. Eta, azken finean, zerk du eraginik handiena, plazerrak ala eginbeharrak?

Gai honetan arreta handiz ibili behar dugula uste dut. Berreuskalduntze prozesuaren azpian dauden baloreak ondo mamitu eta aztertu behar ditugu, eta, aldi berean, kultura hori zentzu ludiko batekin lotu; honela egiten ez badugu ezin diogu erderari konpetentziarik egin.

Euskararen normalizazioa, beraz, bi sarraila dituen atea da eta biak zabaldu behar dira batera.


— Euskarari ematen dioten tratamenduari buruz, zer esango zenuke Euskal Herrian dauden talde politikoez?

— Zer gertatzen da Euskal Herrian? Ditugun alderdiak, edo erdaldunak dira erabat, edo sasi-euskaldunak. Denok dute erdara nagusi. Egun, gai honek kezkatzen gaituena baino gehiago kezka arazi beharko gintuzke.

Egoera hau aldatzen ez den bitartean, ezin daiteke euskararen izenean mintza, zeren eta euskarak behar dituen neurriak *orain* behar ditu, euskararen bizitza kolokan eta arriskuan *orain* dago. Baina alderdi erdaldunak eta sasi-elebidunak direnez, beti jarriko dituzte euskararen interesak gerokoan, etorkizunean.

— Zenbateraino uste duzu ezagutzen dituela jendeak, edo, hobe esanda, zenbateraino dauzkala bereganatuak ideia hauek?

Nire liburuan proposatzen ditudan motibazioak era horretakoak dira, baina nire liburua ez da iristen jende horren-



Jose M^a Sánchez Carrión, Txepetx gana; zabalkunde arazoak, liburuen balioaz jendeak dauzkan aurreritziak direla medio, liburua ez da behar beste ezagutzen. Bide berriak urratu behar dira.

— Jakinean gaude baduzula AEDren berri, zer iruditzen zaizu elkarte honen lana?

— Arrasaten egiten ari den lana oso interesgarria dela, ez bakarrik Arrasaterako, baizik eta Euskal Herrian beste alternatiba baten bila dabiltzanen eredu eta enxerplu ezartzeko.


Arrasaten euskaldun giroa indartzuz ari zareten neurrian, euskararenganako motibazio positiboak berpiztea lortzen duzuen heinean, zuen jarrera euskararen normalizatorako besteena baino baliagarriago suerta daitekeela frogatuko duzue.

— Eta azkenik, ze oroimen duzu Aramaixo herriaz. Han bizi izan zinen urtebetez, ezta?

— Esperientzia bikoitza izan zen. Alde batetik oso leku zoragarria da; Araban gelditzen den haran euskaldun bakarrenetarikoa izanik, bazuen herri honek metafora bat nere bihotzean; izan ere, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren arteko mugan kokatzen denez, Euskal Herriaren kontzientzia osoa edukitzeko aterpe eta gaztelu aparta zen. Baina garai hartan jaio zen gure alaba, birika problema handiz jaio zen, eta bertako hezetasuna ez zitzaion batere komeni. Kontuak honela, ez nuen Aramaixoko giroa dastatzeko trankilidadea eta sosegua izan. Pena izan zen.

Julen Arejolaleiba

Aire berriak Besaiden



Jon Arregi, Lehendakari berria

Asteartean, hila 17an "Besaide Mendizale Elkarte" k Batzar Berezia izan zuen. Mahai gainean gai bakarra: lehendakari berriaren hautaketa. Aurkeztutako kandidatu bakarra, Jon Arregi, aho batez hautatua izan zen. Honek Felix Iturbe ordezkatu du hemendik aurrera.

Jon Arregirekin batera, talde

berri bat hasiko da lanean Besaiden, osatutako ekipoaren ezugarririk deigarriena, bere gaztetasuna dugaririk.

Gaztetutako Besaide honen berri izateko, bere lehendakari berriarekin bildu gara. Honek esan digunez, Elkarteak ildo beretik jarraituko du, baina aktibitate berri batzuk ere bultzatuko dira hemendik aurrera. Honetaz aparte, gazteen arteko ekintzak potentziaztea da beraien helburua.

Honako hauek dira martxan jarri nahi dituzten ekintza berriak:

—orientazio teknikak: ibilaldietan parte hartzen dutenei irakatsiko zaie;

—mendiko teknikak sakondu: ikastaroen bidez (harrizko eskalada, izotz-teknikak);

—aste kulturala egiteko asmoa;

—mountain-bike ibilaldia sortzea.

Hileroko ibilaldiak, Leintz-

Bailarako Bira eta beste ohizko ekintzak jarraituko dira egiten, bestalde.

Besaide Elkarteak lau atal ditu: Skia, Espeleologia, Mendia eta Eskalada eta Alpinismo, hain zuzen. Esan behar, Espeleologia eta Ski Sailek, beren aldetik, funtzionamendu autonomoa dutela.

Batzordea kide hauek osatuta geratu da: Lehendakaria: Jon Arregi, "Axeri"; Lehendakariordea: Aitor Zubiaga; Idazkaria: Marijo Ijurreta; Diruzaina: Bittor Iñarra; Bokalak: Aitor Okina, Cesar Bastardo, Niko Uribarren, Etor Arregi, Javi Zubiaga, Karmelo Bergaretxe (Ski-Saileko ordezkaria) eta Felix Elortondo (Espeleologia).

Batzordekide guztiak berriak dira, eta oso gazteak, gehienek 25 urte baino gutxiago dutelarik.

Hasiera batean, Felix Iturberen taldeak lagunduko die Elkarteak, antolatuta mailan, martxan jartzen.

BERGARAKO UNED

"HIRIA ETA AGINDUTAKO LURRA" IKASTARO MONOGRAFIKOA

— Kultur greko eta judutarren denbora-espazioa kontzepzioak eredu narratiboak eta proposamen politikoak.

— HIZLARIAK: * Migel Morey
* Antonio Kanpillo
* Ana Lucas
* Carlos García Gual
* Rafael Agirre
* Juan Aranzadi
* Gabriel Albiac
* Agustín García Calvo

Tfnoak: * 761342
* 761343
* 762993

Informazioa: Bergarako UNED
Historia Departamentua


AUKEA Trofeoaren banaketa

Asteartean AUKEA izeneko trofeoak banatu ziren zabaldu berria den Antoñako Pabiloian. Emanaldi hau Pabiloiaren inaugurapen ofiziala egiteko aprobetxatu zen.

I. AUKEA Trofoea Antonio Caballerok, Rafa Aspek eta "Arrasate Atletiko Taldea"k jaso zuten.

Caballero eta Axperi, iazko Seuleko Joku Olinpikoetan izandako partizipazioagatik, boxeo eta tiro-olinpiko disziplinetan, hain zuzen ere. "Arrasate Atletiko Taldea"ri instalazio

egokirik eduki ez arren, Lehen Dibisio Probintzialera igotzea



Rafa Aspe

lortu zutelako azken denboraldian.



J. M. Petreñas (Arrasate Atletiko Taldea)

Auto-Kross

Meatzerreka Auzoko jaiak hasten direla eta, datorren igandean, 22an, Sarako zelaian I. Auto-Krossa izango da. Probak goizeko 11etan hasiko dira.

Kotxez joango direnei zera erregutzen zaie, kotxea horretarako bakarrik jarritako aparkalekuetan uztea.

"Murukixo" Aretxabaletako taldearekin eskiatzera

"Murukixo"k, Aretxabaletako mendi-taldeak, astebukaera honetarako Formigalera bidaia antolatu du.

Irteera, datorren Larunbatean, hilak 21, goizeko 5etan CLPeko bulegoen aurrean izango da, eta


itzulia, berriz, igandean arratsaldeko 9ak aldera. Bidaia 7.600 pta. kostatuko da.

"Murukixo" taldekoek, bestalde, datorren Otsailaren 18rako beste eski-irteera bat antolatu dute.

Gaiz aldatuz, taldeak eginiko zozketan 918 zenbakia suertatu da saritua.

Denborapasen soluzioak

- Esaera zaharrak, zaldiz: "Munduan nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin ohera eta txoriekin jeiki".
- Euskal Herria ezagutzuz: Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun, Bidasoa.



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

- Picasso - "Les Demoiselles D'avignon": arte modernoaren historian lehenengo hausketa



Hamasei urte besterik ez dira falta obra honen lehen mendeurrena ospatzeko eta oraindik ere gaurkotasuna gordetzen duela iruditzen zaigu, nahiz eta zenbaitzuentzat lizuna eta gusto txarrekoa gertatzen den. Picasso, artearen historiak izan duen margolaririk haundienetarikoa bat, jenio gehientsuenak bezalaxe, zegokion garaian aurreratua bizi

zela, horra non dagoen koska. Are gehiago, Picasso, eta bereziki obra hau, XX. mendeko lehen hausketa ekintza izan zen. Une honetatik aurrera gizaldi hau, arlo artistikoan, abangoardia mugimendu goragarrien jarraikera bat izan da, non bakoitzak aurretikoak baino hausketahandiagoa proposatu duen. Picassok zatitu zuen lehenik pastela; eta hirutan egin, alegia.


Lehenengoa irudiari dagokio; hau planotan banatuko du, lehenago lortu ezin zitekeen errealitate intelektual bat eskuratzeko asmotan. Hau da, Picassok alde guztietatik begiratuko ditu irudiak, bai aurretik, bai atzetik, bai aldamenetik, gero margoan ikusi duena azalduz; hor non beso dislokatuengatik zergatia, edo maila ezberdinetan dauden begiena, etab. Bere xedea ez da itsusitzearena, erreali-

tate intelektual bat lortzearena baizik, esan bezala. Picassori esker, margo bat, zentzuen sensibilitate hutsa izatetik adimenaren fruitu izatera igaro da.

Beste zati nagusi bat espazioa da. Hau ia ez zen aldatu berpizkunde garratik. Picassorentzat espazioa beste elementu bat besterik ez da, edozein irudi bezala deformatu eta zatitzen dena. Horrela, koadro honetan, sakontasunik gabeko espazio bat agertzen zaigu, beiraren antzera apurto eta zartatzen dena.

Azkenik, hirugarren zatia irudi beltzek osatzen dute. Eskumako irudi taldekoen aurpegiek aintzinako kulturetako mozorroak dakarkigute gogora. Picassok berezko arte bat aurketu zuen hauengan, zibilizazioak kutsatugabeko espresioak. Ezkerraldeko irudi taldeari kontrajarri zizkion hemen, zaharraren eta berriaren arteko solasaren bila, horrela arte berri bat sortu nahiz.

Mikel Arregi



ARRASATEKO UDALA

Udal Plenoak, 1989ko Urtarrilaren 13an egindako sesioan, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

1.— Aramaio Ibaian, Arrasateko Udalerriko aldean hain zuzen ere, ur zikinen eragozle bat jartzeko proiektua erradaktatzeko lanak lehiaketaren bidez kontratatzea arautuko duten Baldintza Tekniko Partikularren eta Juridiko Administrazioen Plegua araitzea.

2.— Aipatu plegua jendeaurrean jartzea, 8 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

3.— Aipatu lanak kontratatzeko lehiaketaren deia egitea.

Arrasaten 1989ko Urtarrilaren 17an

Alkatea

Txibisto

Poliki-poliki, Deba Garaiko musikazaleontzat erreferentzia-puntu bihurtu da Bergarako Txibisto aretoa. Azken urtean, adibidez, *Lloyd Cole and the Commotions*, *Immaculate Fools*, *Radio Futura*, *Sugar Cubes*, *Tam Tam Go*, *Hertzainak* eta *Barrikada* izan ditugu bertan, besteak beste. Eta laster batean etortzekoak omen dira *Ilegales* eta *Ronaldos* taldeak. Zerrenda bikaina, benetan!

Eta Txibistoren ezaugarriak kontutan hartuz gero, oraindik eskergarriagoa da talde horiek ekartzeko egin behar izan duten ahalegina. Izan ere, aretoa oso aproposa da zuzeneko emanalditarako, baina bere tamainan badago arazo bat. Hain zuzen ere, punta-puntako taldeen kontzertuetarako txikiegia gertatzen da Txibisto, horrelako taldeek kiroldegiak, zezen-plazak edota futbol-zelaiak behar izaten bait dituzte. Eta beste zenbait talderentzat, oso interesgarri izan arren minotario direnentzat, Deba Garaiko biztanle-kopurua juxtu xamarra da, behar adinako entzulegoa biltzeko. Gasteizko "The End" aretoa azken boladan eredu bihurtu bada ere, ia asteroko musikari interesgarriak eskainiz, ez da ahaztu behar Gasteizko biztanlegoak hiruzkoiztu egiten duela Deba Garaikoa.

Horregatik, Txibistokoei gure animoa, ahal duten neurrian jarrai dezaten bide horretatik.

Mikel Irizar


Katu Kale

Euskal Telebistak asteoro musikari eskaintzen dion saio honek sekulako maila ona lortu du azken hilebeteotan. Saioaren aurkezpeneko irudi ederretan sumatzen da, hasieratik, ez gaudela ohizko horteradaren aurrean. Edukia, berri, orekatua da eta gehienetan oso ondo aukeratua. Albiste, diska berri, elkarrizketa eta kontzertu ospetsuen zati luzez osatzen da saioa, musikazko bideo eta zinemari ere tarte bereziak eskaintzen dizkietelarik. Horteradatik aldenduz eta elitismoan erori gabe, gaurko musikaren eskaparate bikaina bihurtu da saio hau*.

Hala eta guzti, zure etxeko telebistan, parabolika bidez ikus daitezkeen saioak bame, musikari buruzko saiorik onena, ETBko Katu Kale hau. Asteartez eta gaueko 9,50etan. Musikazaleentzat ez galtzekoa.

*Akats bakarra, baina handia, euskal musikak duen presentzia eskasa, ia presentziarik ez.

ENTZUN GAITUZUE?
BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

**Monte
Taberna**

Maalako Errebala 11
Tfnoa: 79 20 56

OSORIK
Pub
Ignazio Zuloaga

O S T A R K U D A N T Z A L E K U A

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

Txomin zopak edo ardo zopak

Hona hemen Garagartzako Goiko Errota Juana Uribetxebarria-rengandik jasotako errezeta.

Osagaiak: Arto-ogia.
Baserriko gari-ogi siku samarra.
4 bat atal eder berakatz.
Piper mina (gura bada).
Gatza.
Ura.
Olioia.

Ura, berakatzak zanpatuta eta piper mina lapikoan jarri. Irakiten hasten denean, arto-ogia eta baserriko gari-ogia berakatz zopen moduan zatituta bota, baita gatza eta olioia gordina ere. Hasiera batean, su bizi samarrean eta gero su motelean eduki, harik eta arto-ogia goilara batera atera eta samur desegiten dela ikusi arte.

Zizka-Mizkak

Auskalo nun gertatutekue.

Behin batian bururetu i jakuen batzun batzuei afai ederra in bie auela asta-kumatxo bat panaderixako laban erreaz. Pentsatu ta ein, baita tripak majo bete be.

Baine, han geratu jakuen astaburue sobran. Afalosteko kopen berotasunien leister konpondu zan arazue.

—Hi, ze ingo juau honeaz?

—Gordeik peskau zopa eder bat eiteko.

Morokil Taldea

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa:76 22 68

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

ITSASKI

arrandegia

arrain freskoa eta

Jaki izoztuak

Uribe Auzoa

Arrasate. 79 98 94

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABAETA

ARRASATE

Press

Bidal iezazkiguzu
zure kolaborazioak

Errasti kristaldegia

Plastiko eta burdinazko hodiak

beirina eta kristalak

akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 24 25

Kirola, adineko pertsonentzat

Kirolen bat egitera animatzen diren adineko pertsonak gero eta gehiago dira. Badira gaztetan ekin-tza honetan hasi eta beti bere horretan jarraitu dutenak; beste batzuek berriz, gaztetan kirola egin baldin bazuten ere, gero utzi egin zuten eta orain, animaturik, prest daude berri-ro hasteko; azkenik, hirugarren taldean (gehienak hemen aurkitzen dira) inoiz kirolik egin ez dutenak daude; orain urteekin, osasuna eta bizi-kalitate hobea lortzeko gogoz bultzatuak sentitzen dira ariketaren bat egitera.

Aktibitate fisiko berri hau hasi baino lehen, azterketa medikoa egitea ez dela komenigarria bakarrik baizik eta derrigorrezkoa ere bai, esango nuke; bihotzeko gaitzen bat edukitzea gerta liteke eta aktibitate berri hau baloratu egin behar da, gero disgustorik egon ez dadin.

Adineko pertsonentzat ariketarik egokiena, kirol aerobio atsegingarria da; hau da, galkarga gutxi duena, sistema kardiobaskularrari eragiten diona, eta pixkanaka egin gainera; adibidez: poliki korrika hasi, igeriketan, bizikletan... baina beti erostasunez, bakoitza bere neurrian, eta hori bai, erregulartasunez eta iraupenez.

Astean hiru edo lau aldiz aritzea, 45-60 minutu bitartean, nahikoa izaten da.

Mantentzeko gimnasia eta muskuluen luzapenerako ariketak ere komenigarriak dira, osagarri bezala.

Aktibitate fisikoa egiten ari garenean, noizean behin, gure buruari pultsua hartzea komeni da gure indarrak neurtzeko, eta honek ez du Gehienezko Bihotz-Frekuentzia (FCM)ren % 80a gainditu behar.

Neurri hau horrela kalkulatzeko da:



220 - adina = F.C.M.

Beraz 50 urte dituen pertsona batentzat, 170 izango da F.C.M. hori. Bere kirol-saioetan 136-140

Pultsaziotatik minutuko ez luke pasa beharko.

Asterakoan, piskanaka egin behar da, lehenengo berotu eta muskuluak luzatu.

Bukaeran ere berdin, ez da bapatean amaitu behar, poliki-poliki baizik; eta bukatzeko gimnasia pixka bat ere primeran etortzen da.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauz)
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauz).
- Merkataritzarako lokala hartu nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m2. Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m2. Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisua salgai Uribe Auzoan. 4 logela, egongela, 2 bainugela, garajea eta trasteategia. Tfnoa. 793612.
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2º). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko presatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisua salgai, altzariekin, Makatzenan (5—4º A) Tfnoa. 799357
- Garage bat errentan eman nahi da. Urribarrin, kotxe birentzako lekua du. Urtarrilak 20 baino lehen.

LANA

- Deba Beheko enpresa batek Marketing Saileko Zuzendari-postua bete

nahi du. Interesatuak, 57. postakutxara bidali behar dute beren curriculumak eskuz idatzita, bertan 17 DM erreferentzia ezarri.

- Deba Garaiko enpresa batek 8 lanpostu bete nahi ditu. Interesatuak Arrasateko INEMeko bulegoetara (Garaibai, 3) joan behar dute.
- Eibarko Udalak Administrazio-postu bat bete nahi du, oposizio-lehiaketan bidez. Oposizio-lehiaketa arautzen duten oinarriak 1988ko Azaroaren 14ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (223. zka.). Eskerak aurkezteko epea, 1988ko Otsailaren 10era arte, Eibarko Udaletxean.
- Eroski Koop. E.ak bi Publizitate-Teknikari behar ditu. Interesatuak, Urtarrilaren 19a baino lehenago, beren curriculumak eta telefonoa bidali behar dituzte. Helbidea: Eroski Koop. E. (Gizabaliabide Saila), San Agustin Auzoa, 48230-Elorrio.
- Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak Goimailako Teknikariak behar ditu ondoko lanpostu hauek betetzeko: Zerbitzu-Ikustatzailea; Gizabaliabideak; Informazio Sanitarioa; Planifikazio Ekonomikoa; Gaixoen Atentzio-Zerbitzua. Eskari-orriak eta gainerrako informazioa: H.A.E.E.ren Egoitza, Unibertsitate Zaharra, Oñati.
- Hydraulix Ring, S.L.ak bi lanpostu hauek bete nahi ditu Elgoibarren: Fabrikazio-teknikaria eta montadorea. Interesatuak deitu 74 21 30 telefonora, Solano Jaunagatik galdetuz.
- Igeltseroak behar dira: autonomo kontratatuak. Soldata elkarrekin erabakitzeke. Interesatuak deitu 71 74 61 tfnora.

- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Tfnoa: 79 35 44.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 79 09 00 (Jose Felix)
- Ia estranaturik gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62

IKASTAROAK

- C LENGOAIA Arrasateko IMI zentroan, Otsailaren 6tik 17, Arratsaldeko 4etatik 8etara; Programa: C Lengoiaren deskribapena, motak, ordenadoréak, adierazpenak, fluxuaren kontrol-sententziak, C funtzioak eta egiturak, sarreak eta irteerak.
- Informatika: sarrera. Arrasateko IMI zentroan, Urtarrilaren 30etik Otsailaren 3ra, arratsaldeko 4etatik 8etara. Programa: informatika sarrera, testu prozesadorea, orri elektronikoa eta datu basea.
- Adimen artifiziala eta sistema espertoak. Programaren laburpena: Adimen artifiziala, sarrera, teknikak eta lengoaiak.
- Sistema espertoak: diseinu, praktikak, diagnostikorako sistema espertoak zelula malguetan. Informazioa eta izen ematea Arrasateko Ikerlan Kooperatibian. Tfnoa.: 79 48 11.
- Ikastaroa UNEDen. Bergarako UNEDeko historia-departamentuak antolatuta, ikastaro bat izango da bertan "La ciudad y la tierra prometida" gaiari buruz, Urtarrilaren 28tik Martxoaren erdialdera.



ARRASATEN HILAK

Paula Pavo Ignacio

81 urte

Urtarrilaren 15ean hil zen

Mari Luz Gonzalez Luengo

Urtarrilaren 16an hil zen

Matea Bidaburu Gorosarri

82 urte

Urtarrilaren 17an hil zen

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: -----

Zehar kale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 797164

Konplizearen atxiloketa

Euria da. Busti eta geldoa, beti bezala. Tantoak kalea apaintzen duten izar koloretsuak estali nahian dabilta. Eta azken egunotan bezala, Trull, gure protagonista, bere praktako ezkerreko poltsikuan aurkitu dituen diru apurrak zenbatu, eta Manuelen tabernan barneratu da babes bila edo, auskalo!

Ez dago jende askorik barruan, filtrorik gabeko zigarroak mihizkatzen dituzten hiruzpalau agure urruneko mahai hartan, eta barra atzean ezkutatua dagoen tabernari txikia besterik ez.

Trull, azken aldian bezala, honengana hurbildu da aldama-daka; barra ondoan eseri, eta basoerdi bat eskatu dio tabernariari. Une batez, koadroez ziprizedutako hormara begira geratu da; aurreko basoa esku batez hartu, eta tragoz irentsi du edaria ondoren.

Tabernariak, Trullen ondora aurreratu, eta basoa bete du berriz. Ixilik dirau Trullek, aurreko edaria begibistan duela. Eskua luzatu, eta basoa aztertzen hasi da zerbaiten bila ibiliko balitz bezala, burua altxatu eta ezkerrean gabon apaindurek jantzitako apalerian finkatu du begirada eta, besterik gabe, aurrekoan bezala kolpe batez edan du edaria, osoa.

Tiro hotsek ustekabeen astindu dute airea. Tabernaria lurrera erori da, zerraldo. Odolak busti du bere aurpegia, mallo gorri baten ildo agortua balitz bezala. Trullek pistola praktako eskumako poltsikoan sartu du, eta zain geratu da.

Gero, norbaitek, tabernariaren gorpua klarioi txuriz inguratuko du eta, ezezagunak, ene etxeke atea joko du, konplizea atxilotuz, euriak, beti bezala euri busti ikustezinak, kale iluna laztantzen duen bitartean.

Andoni Urzelai

Urte berri

Urte zarrari agur egiñaz
degu berrian aukera,
zure aurrean buru-makurka
natorkizu eskatzera.
Etorri zaite apal da gozo
ta indartuzazu Euskera,
gaur banaturik gauden anaiok
bilduaz bide batera ...

Oharra, 5. zenbakian Urte berri izenburu-arekin Kepa Urainen bertso batzuk argitaratu genituen. Lehenengoan, "bilduaz" jarri ordez, "bialduaz" jarri genuen. Hona hemen, bada, zuzenketa.

Iosu
argazki denda

- * ARGAZKILARITZAKO MATERIALA
- * ERREPORTAIK ETA
- * BISUTERIA

Olarte kalea 11
Tfnoa: 79 82 60

KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea,7 Tfnoa:79 73 88

■ **“Kantu eta kontu zaharrak”**. Hauxe izango da, seguruenik, Arrate Irratiko irratsaierik arrakastatsuen. Orain sei urte hasi zen Bernardo Ibarren eskutik, larunbatero ordu t´erdiz emititzen. Urte hauetan sekulako entzulego fidela lortu dute, adineko jendearen artean batez ere. Kantak, ipuinak, bertsoak eta aspaldiko kontuak entzuleen ahotsetan, umore onez hornitutako euskara bizian. Arrate Irratian, larunbatero, gaueko 9,30etan.

■ **“Aita Jauna”**. Gustora ikusi nuen ETBn Ford Coppolari ospea eman zion filmea. Edozer gauza egiteko prest zegoen Corleone aita puntakoak, inolaz ere ez zituen drogak onartuko, ez horixe. Gogoratzen bazarete, filme hau lehendabizikoz Costa-Gavras zuzendari frantsesari eskaini zioten. Mafia eta drogaren arteko lotura estuak azpimarratu nahi izan zituzenez, kendu egin zioten eskuetatik. Hala ere, atseginaz ikusi nuen.

■ **“Iturri onetik”**. Literatura gustatzen bazaizu, literatura unibertsala esan nahi dut, hauxe da zure irratsaioa, Euskadi Irratiak ostiraletan zeuretzat bereziki egina. Arantxa Irastortzak zuzendua, Andu Lertxundiren laguntzarekin. Aipatuekin batera, hauetxek dira asteroko parte hartzaileak: Felipe Juaristi idazlea, Felix Ibargutxi kazetaria, eta Gurutze Aldabaldatreku irakaslea.

Hor izango dituzu literaturari buruzko azken berri eta kontuak, nobedadeak, txutxumutxuak eta umorez apaindutako kritika serioak.

Azken saioan Tom Wolfe idazle iparramerikarraren “La hoguera de la vanidades” liburuari tokatu zitzaion txanda. Esan bezala, oso irratsaio atsegina. Euskadi Irratian, ostiralero, iluntzeko 9etan. Kasualidadez galduz gero, beti izango duzu aukera hurrengo astelehenean entzuteko, arratsaldeko lauretan.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **“Katu-kale”** musika saioa asteartean, gaueko 21.50etan. Saio polita Katu-kale egiten dutenak eskaintzen digutena asteartero, kantarien inguruko erreportaiak, kontzertuak, azken bideo-klipak etab. luze batez hornitua, atsegin suertatzen da ikuslearentzat.

■ Igandean, Urtarrilak 22an, ETBn, bazkal osteko zinea, **“They died with their boots on”** (1942) filmea ikusteko aukera izango duzu.

Zuzendaria: Raoul WALSH
Antzezleak: Errol FLYNN, Anthony QUINN, Olivia de HAVILLAND

Pelikula klasiko honek, Custer Jeneralaren historia eta Little Big Horn-eko bataila ospetsuan eten egin zen haren bizimodua ere azaltzen digu.

■ Karmelo Somozak zuzenduriko **“Ezbaian”** debate-saioa astelehenean Urtarrilak 23an gaueko 21.50etan. Nahiko debate interesgarriak eskaintzen ari zaizkigunak saio honetan, Euskal Herriko egungo gaien inguruan.

SORGIÑA IRRATIA

(105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Urtarrilak 20, Ostirala

7-9 KK Profe puag

7-9 Piramyd

10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua

11,30-12,30 Beltza blues klub

Urtarrilak 21, Larunbata

8-9 Onda katxondoa

9-11 Dana ondo dabil

11-1 Banpiroak

Urtarrilak 22, Igandea

10-11 Puuag!!! (Musika eta kontra-
informazioa)

Urtarrilak 24, Asteartea

7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat

8-10 Pufa kalufa

10-11 Bai zera!

11-12 Irrintzi

Urtarrilak 26, Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria

7-8 Exterminioa helburu

8-9 Mara-mara (Emakumeen
Asanblada)

9-10 Itxungitako dragoie (AED)

10-11 Amen Jesus!

11-12 Gau erdiko klasikoak

OSTADAR IRRATIA

Urtarrilak 20, Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko-
koa)

Urtarrilak 25, Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Urtarrilak 26, Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-
ketak).

●	TXO ²⁴	●	ZI ¹⁴	HI ⁵	E ²²
●	OI ¹⁵	NA ⁴	TA ²³	●	BI ¹³
●	NAK ⁸	RI ²⁵	AN ¹²	RA ²¹	DU ⁶
LO ¹⁶	AN ³	KIN ¹⁸	E ⁷	E ²⁶	KI ²⁹
LU ⁹	●	KIN ²⁷	DU ²	RO ¹¹	ME ²⁰
●	E ¹⁷	ZA ¹⁰	O ¹⁹	JET ²⁸	MUN ¹

Esaera zaharrak, zaldiz
(Herri-aholku bat)

→ *Irteera*

↑
Sarrera

F	S	A	B	E	D	A	I	T	Z
J	E	L	I	B	E	O	O	D	E
A	G	O	R	T	I	I	R	I	B
R	T	R	A	B	A	Z	I	O	I
A	K	U	R	R	T	E	A	N	D
K	I	E	T	Z	U	N	M	U	A
I	N	Z	T	A	R	G	A	I	S
L	U	K	A	I	N	K	A	T	O
N	Z	U	R	U	M	E	A	G	A
A	L	T	X	A	P	O	R	R	U

Euskal Herria ezagutuz

Bila itzazu zopa honetan Gipuzkoako sei ibai nagusien izenak

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES

(Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)

Sukaldaritzarako trebetasun berezia duzu. Zergatik ez duzu gehiago praktikatzen? Zure ingurukoek eskertuko lizukete.



LEO

(Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra)

Merkealdiak aprobetxatu zapata berriak erosteko. Eros ezazu pare bat baino gehiago, bada ez bada.



SAGITARIUS

(Azaroaren 23tik Abenduaren 21era)

Etxekoak zaindu behar dituzu, momentu honetan behar zaituzte eta. Bizitza ez da bakarrik abestea eta bi-daiak egitea.



TAURUS

(Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)

.Zezen torax hori lau haizetara jartzen baduzu berriz ere ezta mina izango duzu. Batez ere gauetan abestuz bazoaz kaletik zehar.



VIRGO

(Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra)

.Ez zara ematen duzun bezain zintzo eta aldemenekoak honetaz konturatzen ari dira. Argi ibili zure egoera eroso hori ez galtzeko.



CAPRICORN

(Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra)


Aste honetan ez duzu ezertarako astirik izango; baina hala ere zure buruarekin gustora egongo zara. Ezbeharretan moralala mantentzen jakitea ez da gauza txarra.



GEMINI

(Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era)

Aldaketa komeni zaizu baina ez hainbeste. Denetara jokatzeari askotan arriskutsua gerta daiteke, kontutan hartu hurrengo baterako.



LIBRA

(Irailaren 24etik Urriaren 23ra)

Yatebale! Ea zure lagunei kasu gehiago egiten diezun eta ez sartu sudurra deitzen ez dizuten lekuetan.



AQUARIUS

(Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra)

Lasaitzen saiatu behar zara aspaldi honetan urduiegi zabilza eta. Masaiak eman diezazkizun eskatu zure printze urdinari.



CANCER

(Ekainaren 22etik Uztailaren 22ra)


Lagunen aholkuak jarraitzen badituzu, ondo aterako zaizu. Ez uste danetarako zure eritzia nahiko denik.



SCORPIO

(Urriaren 24etik Azaroaren 22ra)

Oso ondo ibili zara orain arte ez zaitetz okertu orain. Eskuardean daukazuna ez da banatuko.



PISCIS

(Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra)

Zure oin eta eskuak ondo zaindu baita zer diozun ere, badakizu zergatik. Ilargiaz gozatu, joan Urkulura paseatzera edo.

Zenbat aldizkari eta egunkari jasotzen den liburutegi publikoan?

Seguruasko batzuk nahi baino gutxiago eta askok uste baino gehiago. 50 aldizkari eta 7 egunkari. Zehazki zeintzuk? Hona hemen aldizkarien zerrenda gaika sailkatuturik:

—Literatura:

Quimera, El Urogallo, Saber leer, Literatur Gazeta.

—Euskara:

Aizu!, Habe, Euskara, Euskarazaintza, Anuario del Seminario Julio de Urquijo.

—Aktualitatea:

Argia, Punto y Hora, El Europeo, Primera Linea.

—Antzerkia:

Primer Acto, El Público.

—Antropologia-Etnografia:

Cuadernos de Etnologia y

Etnografía de Navarra. Munibe, Anuario de Eusko Folklore.

—Historia-Artea:

Principe de Viana.

—Bidaiak:

Viajar, Editor, Traveledata.

—Kontsumoa:

Eroski, Consumo.

—Kultura:

El Correo de la Unesco Unescoren Albistaria, Información cultural.

—Pedagogia:

Cuadernos de Pedagogia, Eskola, Apuntes de Educación.

—Txutxumutxuak:

Dunia.

—Ekologia:

Integral.

—Gazteria:

Goitibera.

—Osasuna:

Vitalidad.

—Hizkuntzak:

The Englis Press, Actualité en Français.

—Herrietako prentsa:

Lazkao, Hots, Arrasate Press.

—Apainketa:

Nuevo Estilo.

—Beste batzuk:

RIEV (Centro Internacional de Estudios Vascos), Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos Del País, Refugiados, Sasaki-naski, Tu-Lankide, Perfiles, Txistulari, Revista española de defensa, Boletín de la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa. Autor.

—Egunkariak:

Egin, Deia, El Diario Vasco, El Correo Español, El País, Eguna, Hemen.

1989KO SKY-KANPAINA

ASTEBUKAERATARAKO IRTEEREN PROGRAMA



URTARRILA
14-15 FORMIGAL
21-22 CAUTERET
28-29 CAUTERET

OTSAILA
04-05 FORMIGAL
11-12 FORMIGAL
18-19 CAUTERET
25-26 FORMIGAL

APIRILA
08-09 FORMIGAL

MARTXOA
04-05 CAUTERET
11-12 FORMIGAL
18-19 CAUTERET

PREZIOAK:

FORMIGAL: Irteera 5'00etan.

Autobusa+“ Nieve Sol” Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

Larunbatean7.500pta

CAUTERET: Irteera 4'00etan

Autobusa + “ L'Ecourelle ” Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

Larunbatean7.950pta.

—Aste Santuko irteera (Martxoaren 24 etatik 27ra) Frantziako pirinea (Prezioa jarri gabe)

—Pazko asteko irteera Alpesetara (Martxoaren 25etik Apirilaren 1era)

42.000 pezeta

TICNES etaVAL D'ISSERE

autobusa+Le Lac apartamentua+Erremonteak+Tasak

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Besaiden, Astelehen, astearte eta asteazkenetan 18'30tik 19'30ra.

Tfnoa:79 84 74